

## **Banaketa eta komunikazio kanalak**

### **KOMUNIKAZIOA:**

Jendea gutaz jakiteko hainbat poster eta kartel jarriko ditugu Bilbotik zehar gure helbideagaz eta jatetxearen baloreak eta iritzi onak transmitituz, Kartel honek jatetxearen alboan egongo dira adibidez: Indautxu, Moyua, Abando, San Mames inguru horretako faroletan eta hormetan jarriko ditugu.

Gaur egun sare sozialak oso garrantzitsuak direnez eta ate asko zabaltzen dabenez jatetxeak Instagrameko kontu bat izango dau eta bertan jatetxearen berri guztiak publikatuko doguz eta eguneroko menua ere. Berriak publikazioetatik zabalduko doguz eta eguneroko menua ere. Egun baten eskaintzak badagoz ere hortik komunikatuko ditugu. Gainera webgune bat zabalduko dogu gure filosofia eta baloreak azaltzeko eta bezeroek gu hobeto ezagutzeko.

Gure jatetxera sartzen diren bezeroei gure filosofia eta menuaren jatorria azalduko deutsegu eta tratu ezin hobea emango deutsegu.

Dendaren eskaparatean eskaintzak jarriko ditugu bezeroak ikusteko eta eguneko menua ere. Menuaren aurkezpena oso landuta egongo da oso garrantzitsua bait da alderdi guztiak zaintzea zerbitzu on bat emoteko.

### **BANAKETA:**

Hasieran ez dogu banaketa zerbitzurik eskainiko eta bakarrik lokalean janaria hartzeko aukera egongo da. Jatetxera hurbildu eta han menua hartu ahal izango da; ezin izango dira plater bakarrak hartu, menua osorik erosi behar izango da eta poltsa batean 3 taperrak sartuko ditugu. Gure lokala Alameda San Mames 35en kokatuta egongo da eta 21m<sup>2</sup> izango dauz sukalde handi eta egoki bategaz.

Urteak joan eanean banaketa zerbitzua emotea erabakitzen badogu gure baloreak errespetatuko dauz, ez doguz glovo-ko enpresa edo beste horrelakorik kontratatuko hor lan egiten dabezan pertsonak lan-baldintza txarretan daudelako eta gure baloreak horren kontra dagozelako.